



#martxoak8marzo EGUESON IV. ARGAZKI LEHIAKETA INSTAGRAMEN

otsaila 18, 2019

ANTOLATZEN DU:

Martxoaren 8an, Familiendako Arreta Zentroko Gazteriarendako Prebentzio Programaren bidez, Eguesibarko Udalak antolatu du "Emakumearen Nazioarteko Egunari" buruzko lehenbiziko argazkilaritza lehiaketa Instagramen bidez.

LEHIAKETAREN XEDEA:

Lehiaketaren helburua da Ibarreko gazteak argazkilaritzaren bidez emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz ohartaraztea. Era berean, Instagram gizarte sarearen bidez egingen da, gazteen artean oso zabaldurik dagoelako.

GAIA:

Lehiaketan aurkezten diren argazkiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna erakutsi beharko dute: gizontasun berriak; elkarren arteko erantzukizuna etxearen barneko eta kanpoko lanetan; kirola eta aisialdia berdintasuna oinarri harturik; nork bere bizitza, lana eta familia bateragarri egitea; tratu onak.

PARTE-HARTZAILEAK:

14 eta 30 urte bitarteko edozeinek parte hartzen ahalko du, baina Instagramen kontu bat izan beharko du. Era berean, lehiaketa indarrean dagoen epean oinarri hauetan azalduriko baldintzetan parte hartu beharko du jardueran. Doan parte hartzen ahalko da lehiaketan.

AURKEZTEKO EPEA, ARGIBIDEAK ETA PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:

Lehiaketa 2019ko martxoaren 8a arte egonen da indarrean. Instagramen argazkia argitaratzen dutenean, lehiaketan parte hartzen dutenek #martxoak8marzoEGUESON hashtagen bidez identifikatu beharko dute obra horren deskribapenean.

Jarraitu beharreko urratsak:

- Egin itzazu eguneroko unean argazkiak Instagramen: gizontasun berriak, elkarren arteko erantzukizuna etxearen barne eta kanpoko lanetan, kirola eta aisialdia berdintasuna oinarri harturik, nork bere bizitza, lana eta familia bateragarri egitea, tratu onak.
- Jarri #martxoak8marzoEGUESON hashtaga eta argazkiaren izenburua.
- Facebooken partekatu: **Pij Valle De Egüés Eguesibar**

Parte-hartzaile bakoitzak nahi adina argazki aurkezten ahalko ditu, baldin eta lehiaketaren datetan aurkeztu, eta horren g buruzkoak badira.

Pertsona berak ezin izanen du sari bat baino gehiago lortu.

Irudiak jatorrizkoak eta argitaragabeak izanen dira. Aurkezturiko lanak ez dira lehenago aldizkari, egunkari edo liburuetar edo on linen argitaratuak izanen. Era berean, aurretik ez dute beste argazki saririk izanen.

Instagrametik argitaraturiko irudiak baizik ez dira hartuko, eta behar bezala etiketaturik.

Gainera, antolatzaileen irudiko argazkiak eduki desegokia edo iraingarria badu, lehiaketatik kanpo geldituko da.

Argazkien izenburuak idazteko, genero berdintasuna kontuan hartu beharko da.

Baldintza hori betetzen ez duten irudiak ez dira baloratuko.

BALORAZIORAKO IRIZPIDEAK:

Hona hemen argazkiak baloratzeko erabiliko diren irizpideak:

- Kalitatea: %20
- originaltasuna eta sortzailetasuna: %30
- irudiaren gaia, edukia eta balio pedagogikoa: %50

EPAIMAHAIKIDEAK:

- Gazteria, Emakume eta Genero Berdintasunerako Alorren zinegotzi ordezkaria.
- Berdintasun Teknikaria
- Gazte zerbitzuko langile bat.

EGUTEGIA

< OTSAILA >						
			1	2	3	
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28			

Agenda

[Alkatearen agenda](#)

[Lan eskaintzak](#)

BERDINTASUNERAKO ESKOLA: 2019KO LEHEN LAUHILEKO EKINTZAK



[izena emateko](#)

NEGUA 2018-2019



HARPIDETU GURE BULETINERA

SARIAK:

Hona hemen sariak:

1. saria: 150 euroko opari-txartela Media Markt-en erosteko.
2. saria: 100 euroko opari-txartela Media Markt-en erosteko.

EPAIMAHAIAREN EBAZPENA JAKINARAZTEA:

Epaimahaiak 2019ko martxoaren 12an jakinaraziko du ebazpena sari-banaketan. Saribanaketa Udaleko batzar aretoan arratsaldeko 19:00etan ospatuko da.

OBREN GAINEKO ESKUBIDEAK:

Aurkezturiko obrak Eguesibarko jabetza izanen dira, eta Udalak, irabazi asmorik gabe, eskubidea izanen du sarituriko argazkiak argitalpen, liburuxka eta abarretan erabiltzeko, betiere inprimategiaren oinean egilea nor den aipaturik.

Lehiaketan parte hartzeak dakar ezinbestean oinarriak eta epaimahaiaren ebazpena onartzea. Oinarri hauetan zerbait adostu gabe gelditzen bada, epaimahaiak erabakiko du auzia.

 oinarriak



[<< atzera](#)

Comments Off on #martxoak8marzo EGUESON IV. ARGAZKI LEHIAKETA INSTAGRA

[← Alkohola eta drogak kontrolatzeko kanpaina](#)

[Otsailaren 23 eta 24ko asteburuko jarduerak →](#)


Correo electrónico *

¡Suscríbete!

DATUEN BABESARI BURUZKO POLITIKA



FAKTURA ELEKTRONIKOA



**Aurreztea
Segurtasuna
Abantailak**

**Hornitzaileen
Fakturazioa**

GARDENTASUN ATARIA



OSOKO BILKURA ZUZENEAN



Aurreko Osoko Bilkurak

BICIREGISTRO



ONDARE MATERIAGABEAREN ARTXIBATEGIA



ZERBITZU PUBLIKOAK ETA 012 ARRETA ZERBITZUA

UDAL TZAIINGOA

· Finkoa 948 33 08 88

· Telf. Doan 900 44 33 33 (24 ordu)

UDAL BULEGOAK 948 33 16 11

OINARRIZKO GIZARTE ZER. 948

33 16 50

· **FAZ** 948 16 56 51

· **I. haur eskola** 948 35 74 72

· **II. haur eskola** 948 34 89 23

· **III. haur eskola** 948 80 67 89

Zerbitzu Anitzak 948 80 20 20

LOREZAINZA ETA INGURUMENA

948 33 32 12

OLAZTEKO MUSIKA ESKOLA 948

33 79 76

KIROLDEGIAK:

· **Sarriguren** 948 16 54 84

· **Olatz** 948 33 71 55

OLATZEKO LIBURUTEGIA-

LUDOTEKA 948 33 79 74

SARRIGURENGO LIBURUTEGIA

948 78 89 26

SARRIGURENGO JOAKIN

LIZARRAGA IKA. PUB. 948 80 43

90

SARRIGURENGO HNAS.URIZ PI

IKA. PUB. 948 78 66 20

SARRIGURENGO OSASUN ETXEA

948 19 50 51

GORRAITZEKO KONTSULTATEGIA

948 35 74 70



Informazioa eskatu,
izapideak eta
iradokizunak egin
948 012 012
zerbitzuaren bitartez

EGUESIBAR BIHOTZ BABESLEKUA

**Desfibriladoreen
mapa**

Desfibriladore
mugikorra: 900 44 33 33
(24h)

BERDINTASUNA



(CASTELLANO) ZE BERRI?



